

NAFARROAKO

SEXU INDARKERIEI

BURUZKO KONGRESUA



ESKU-HARTZEA
ERREPARAZIOA
ETA ESTRATEGIA
FEMINISTAK
SEXU-
INDARKERIEN
AURREAN

DOSIER
LABURPENA

NAFARROAKO SEXU-INDARKERIEI BURUZKO KONGRESUA

**ESKU-HARTZEA
ERREPARAZIOA
ETA ESTRATEGIA
FEMINISTAK
SEXU-INDARKERIEN
AURREAN**

DOSIER LABURPENA

AURKIBIDEA

Sarrera

PÁG. 6

SEXU-INDARKERIEN ESPARRUA

Desberdinkeria eta indarkeria. Sexu-indarkeriaren dimentsio sinbolikorako eta harreman-dimentsiorako hurbilketa

PÁG. 12

Baimen positiboaren defentsan, sexu-askatasunaren gutxieneko berme gisa

PÁG. 14

Sexu-indarkerien ibilbide historikoa: bortxaketaren kultura

PÁG. 18

SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEKIN GENERO-IKUSPEGITIK ESKU HARTZEA

Bizipena eta errekupeazioa sexu-indarkeriako kasuetan. Konplexua denaren terapia

PÁG. 22

Sexu-indarkeriak, antzinako preskripzioak eta emakumeen gorputzen gaineko artikulazio berriak

PÁG. 24

Sexu-Indarkerien Arreta Integraleko Zentroa (SIAIZ)

PÁG. 28

Itxaropen Gune—Lugar de esperanza elkarteak

PÁG. 32

SEXU-INDARKERIA BERRIAK

Espanian sexu-indarkeria digitala desagerrarazteko eta prebenitzeko gakoak eta erronkak.

PÁG. 38

Ez nazazu RoRooneatu: zibermisoginiaren kontakizunak

PÁG. 42

GENERO-INDARKERIA ADINGABEEN ARTEAN

Genero-indarkeria adingabeen artean. Haurren kontrako sexu-indarkeria gai feminista da

PÁG. 46

SEXU-INDARKERIAK INTERSEKZIONALITATETIK

Sexu-indarkeriaren trauma gatazka- edo deserrotze-testuinguruetan

PÁG. 54

Desgaitasuna duten emakume eta nesken kontrako sexu-indarkeria: bere-halako ekintzarako orientabideak

PÁG. 58

SEXU-INDARKERIAREN AURKAKO ERRESISTENTZIA ETA ESTRATEGIA FEMINISTAK

Memoria kolektiboa indarkeriaren kontrako arma gisa: lekukotza eta sareak

PÁG. 64

Indarkeria Sexistaren kontrako Emakumeon Plataforma

PÁG. 68

Astelehen Lilak

PÁG. 70

Observatorio Noctámbul@s

PÁG. 72

Esker onak

PÁG. 76

Hizlariak eta elkarteak

PÁG. 78

Bibliografia eta baliabideak

PÁG. 80



SARRERA

2024ko urriaren 3an eta 4an, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak (aurrerantzean, NABI) “Esku-hartzea, erreparazioa eta estrategia feministak sexu-indarkerien aurrean” Nafarroako Sexu Indarkeriei buruzko Kongresua antolatu zuen.

Bi helburu nagusirekin planteatu zen kongresua:

1. Indarkeria-egoeran dauden emakumeekin (bereziki sexu-indarkeriaren esparruan) lan egiten duten profesionalen arteko hausnarketa-gune bat sustatzea.
2. Sexu-indarkeriaren biktimekin egiten diren esku-hartzeak hobetzeko tresnak eta formulak aztertzea.

Kongresuak harrera bikaina izan zuen, bai bertaratu zirenen aldetik, bai aurrez aurre bertaratu ezin izan ziren eta streaming bidez jarraitu zutenen aldetik, bai geroago hitzaldi guztien grabazioak ikusi dituztenen aldetik.

María Chivite Navascués Nafarroako Gobernuak lehen-dakariak inauguratu zuen kongresua, eta azaldu zuen oso garrantzitsua dela ikusgai egitea emakumeen kontrako sexu-indarkeria, gizarte- eta egitura-arazoa baita. Patricia Abad Encinas NABIko zuzendariak hau adierazi zuen (Argazkian).

Kongresuan hainbat arlotako profesional ugari izan dira, bai eta aktibistak, elkarte-mugimendu feministak eta erakundeak eta politikaren ordezkariak ere.

Hausnarketarako eta eztabaidarako foro bat izan da, bai eta bultzada bat ere, Nafarroan berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izan dadin elkarrekin lan egiten jarraitzeko eta prebentziorako, arretarako eta esku hartzeko egun dauden mekanismoak hobetzeko.



Kongresua hedatzeko berariaz sorturiko webgunean dago jasota hari buruzko informazio orokorra. Webgunean, halaber, badira NABIren Youtubeko konturako estekak ere, hitzaldi guztiak kargatu baitira bertan.

Txostenhonek kongresuko hitzaldi guztien laburpena jasotzen du. Dokumentu honen helburua da profesionalei eta sexu-indarkeriaren esparruan interesa duen beste edonori testuinguru teoriko bat ematea emakumeen kontrako indarkeria mota horri buruz ikuspegi feminista eta intersektzional batetik.

Dosierraren bukaeran, kongresuko hizlariak beren aurkezpenetan txertatu dituzten erreferentzia guztiak bildu dira: teorikoak, egileak, aktibistak, ikerketak eta abar.



Sexu-indarkeriaz ari gara, kezkatu egiten baikaitu. Eta helburua izan da ezagutza aditua eta esperientzia praktikoa eskaintzea arretan eta esku-hartzean lan egiten duzen profesional guztioi, bai eta edozein jarduera-eremutan emakumeen giza eskubideen urraketa larri hori desagerrarazten lan egiten ari diren guztiei ere.



KONGRESUARI BURUZ

Kongresuan, emakumeen aurkako indarkerien arloan lan egiten duten hainbat profesionalek parte hartu dute: berdintasun teknikariak eta sustatzaileak, legelariak, abokatutza, gizarte-lana, gizarte-hezkuntza, hezkuntza- eta unibertsitate-esparrua, psikologia, medikuntza, erizaintza, polizia eta abar.

1. Jasotako inskripzioak, guztira. Espazioaren edukiera-muga zela eta, 280 inskripzio onartu ziren, eta 178 utzi ziren itxaron-zerrendan.

458

IZENA EMAN DUTENAK¹

269


BILTZARRERA BERTARATUTAKOAK

97%

EMAKUMEZKOAK

3%

GIZONEZKOAK



SEXU- INDARKERIEN ESPARRUA



DESBERDINKERIA ETA INDARKERIA. SEXU-INDARKERIAREN DIMENTSIO SINBOLIKORAKO ETA HARREMAN- DIMENTSIORAKO HURBILKETA

PATRICIA AMIGOT LEACHE

Psikologia Sozialeko doktorea. NUPeko irakaslea. Genero Ikasketen eta Ikasketa Feministen Katedraren zuzendaria.

Sexu-indarkeriak esparru feministatik aztertzeko, funtsezko bi gai jorratu behar dira:

1. **BOTEREAREN ETA INDARKERIAREN ARTEKO HARREMANA**, zehazki, gizonek emakumeekin ezartzen dituzten botere-harremanak emakumeen “kosifikazioan” oinarritzen direla ulertzea. Prozesu horiek giza izaera osoa ukatzen diote beste pertsonari, eta, ondorioz, harren autonomia eta esperientzia emozionalaren, kognitiboaren eta abarren subjektibotasuna baztertzen edo deuseztatzen dute.
2. **DESBERDINKERIA SINBOLIKOAREN GARRANTZIA**, gizarte-antolaketa patriarkalean gertatzen den genero-sozializazioaren ondoriozkoa.

GAUR EGUN, Mugimendu feministak, berdintasun-politikek eta legeriak posizio hobean jarri gaituzte, eta emakumeen kontrako indarkeriak ulertzeko esparru jakin batzuk lekualdatu ditugu, baina kontraste-une batean gaude. TAurrerapen horiek guztiek erantzun eta artikulazio patriarkala eragiten ari dira, zalantzan jartzen dituen eta


Emakumeen kontrako indarkeriak jatorria du kultura-egitura batean eta gai hauekin lotura duen sozializatzeko modu batean: maskulinitatea nola eraikitzen den eta emakumeak nola menderatzen, instrumentalizatzen eta kosifikatzen diren, batik bat ugaltze- eta sexu-gaitasunaz jabetzeari dagokionez.

duela 20 urte diskurtso sozialean ageri ez ziren diskurtsoak esplizitu egiten dituenak, hala nola:

- Emakumeen kontrako indarkeriaren negazionismoa.
- Genero-arau tradizionaletara itzultzearen aldeko diskurtsoak.
- Indarkeria batzuk areagotzea, eta indarkeria berri batzuk agertzea, eremu teknologikoari eta digitalari oso lotuak.

Diskurtso horiek guztiek kosifikazio-prozesuak islatzen jarraitzen dute; gizonentzat, beren premia eta eskubide uste dituztenak autorreferentziazten eta naturalizatzen dute. Horiekin, horrenbestez, autoritatea ematen diote beren buruari emakumeak presionatzeko, hertsatzeko eta engainatzeko eta haiei inposatzeko eta zigorrak ezartzeko.

Horregatik, sexu-indarkeriak boterea eta nagusitasuna ikusgai egiteko eginkizuna betetzen du, baita mina hutsaltzat jota eta/edo harekin gozatuta ere. Jessica Benjamin psikoanalistak zioen bezala: plazera ez du bestearen minak berak ematen, baizik eta afirmazio subjektibo gisa erabiltzen ari den botereak.





BAIMEN POSITIBOAREN DEFENTSAN, SEXU- ASKATASUNAREN GUTXIENEKO BERME GISA

CARLA VALL I DURÁN

Zuzenbidean lizentziaduna. Zuzenbide penalean eta generoan aditua

SEXU ASKATASUNAREN BERME INTEGRALARI BURUZKO IRAILAREN 6KO 10/2022 LEGE ORGANIKOARI BURUZ (“SOILIK BAI DA BAI” LEGEA). Lege hau erreforma penaletik anitzez haratago doa. Lege honek aldaketa soziala mamitu du, eta legezko paradigma-aldaketa finkatu du, pertsonen sexu-askatasuna eta -autonomia babesteko.

“Legea ez da bere helburua lortzen ari” esaten denean, delitua erabat desagerraraztearen ardura egozten ari zaio zigor-legeari. Baina prebentzio-ahalmen orokor oso txikia dute zigor-legeek.

Lege-aldaketak, benetan, eragina izaten ari dira emakumeengan, eta sexu-indarkeriari buruzko gizarte-kontzientzia aldatzen ari dira; horren frogar bat, Espainian mundu guztia zein zorrotz ari den hitz egiten Gisèle Pelicot kasuari buruz².

2 Gisèle Pelicot 92 aldiz bortxatu zuten, 2011 eta 2020 artean, Dominique Pelicotek, bere senarrak, Internet bidez Mazanen (Frantzia) zuen etxean berarekin “sexu-harremanak” izan zitzaizten. Gisèle Pelicot ez zen ezertaz jabetzen, behin eta berriz egindako bortxaketetan antsiolitikoen eraginpean zegoelako. Epaiketa atek irekita egitea eskatu zuen, akusatuen aurpegia ikus zedin, eta “lotsa” beste aldera pasatu behar zela esan zuen. Epaiketa 2024an egiten ari dira, eta Frantzia hunkitu du. Epaiketa horrek Espainian bortxaketaren, baimenaren eta mendekotasun kimikoaren ondoriozko urraketen kulturari buruzko eztabaida ireki du berriro.

BAIMENARI BURUZ. Baimena ez da kontzeptu konplexua, ezta problematizatu beharreko zerbait ere. Hori aztertzean, beharrezkoa da genero aldetiko desberdinkeriatik abiatzea, ulertzeko sexu-indarkeriari indarkeria den aldetik heltzen zaiola maila juridikoan, eta ez sexualitatearen esparrutik.

Erasotzaileek hainbat estrategia erabiltzen dituzte sexu-indarkerien aurrean. Alde batetik, konfiantza dute biktimak ez duela deus esanen, ulertzen baitute okerragoa izanen dela biktimaarentzat erasotzailearentzat baino. Baina, halaber, biktima gisa aurkezten dute beren burua, aitazakia honetan babesturik: “legea gaizki eginda dago, eta nik ez nekien hori debekatuta zegoela”.

“Nahitako ezjakintasuna” kontzeptua nazioarteko zuzenbidetik heldu da, eta baliagarria zaigu ulertzeko nola funtzionatzen duen barnetik sexu-indarkeriak: erasotzaileak nahita erabakitzen du ezjakintasuna; ez du deus jakin nahi biktimari gertatzen ari zaionaz. Ez du kontsentsua bilatzen. Sexualitatetik indarkeriara ihes egin nahi du.

Legeak gutxieneko berme bat eman behar du beti. Legeak ez du ezarriko nola erlazionatzen garen. Une sozial partekatu bat mamitzeko eta arau bat ezartzeko balio digu.

Horrek ez du esan nahi sozialki eta pixkanaka aurrera egiten ez denik.

Legeek, baliagarriak izateko, baliabide ekonomikoak izan behar dituzte, eta gizarteak haiek erabiltzea, hizpide izatea eta bete daitezela galdegitea.



CARLA VALL I DURÁN



Irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa, sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoa, betetzeko proposamenak.

Krisi-zentroak egotea probintzia guztietan.

Abokatu bila zoazenean, eskuragarri izatea gertatu zaizuna ulertzen lagunduko dizun aditu bat.

Erasoa jasan duzulako ospitalera joaten bazara, laginak har ditzatela eta gorde ditzatela zer egin erabakitzen ahal duzun arte.

Profesionalak gaitzea: emakume anitzi gaixotasun mentalak diagnostikatu dizkiete, inork ez duelako diagnostikatu sexu-indarkeria jasan dutela, trauma ondoko estres kronikoa dutela edo kalte moral handia dutela.

Epategira joaten zarenean, ez sentitzea prozesua zure kontrakoa denik; ez sentitzea froga hutsa zarenik, baizik eta bere eskubideak defendatzen ari den pertsona bat.



SEXU-INDARKERIEN IBILBIDE HISTORIKOA: BORTXAKETAREN KULTURA

BÁRBARA TARDÓN RECIO

Nazioarteko doktorea Genero Diziplinarteko Ikasketetan. Ikertzaile, aholkulari eta aktibista feminista

Gizateriaren historia bortxaketaren historia da. Emakumeen sexu-askatasuna, -autonomia eta -borondatea eta, noski, plazera diziplinatzeko kontrolaren historia da. Ezinezkoa da patriarkatua bortxaketarik gabe existitzea, emakumeok bortxatu izana eta bortxatzea justifikatzen jarraitzen duen bortxaketaren kulturaren ideologia elikatu gabe.

Linda Martin Alcoffen hitzetan, “era konplexuagoan ulertu behar dugu zer den sexu-indarkeria, eta kategoria bitar sinplistetatik edo bortxaketak boterearekin eta ez sexuarekin zerikusia duela dioten baieztapen errazetatik alden du”.

Bortxaketaren kulturak emakumeen kontrako terrorismo fisiko eta psikologikoa toleratzen du, eta araua balitz bezala irudikatzen du. Gainera, sistema honek emakumeen kontrako indarkeria sustatzen eta bultzatzen du, “arrazionalizazio patriarkal” handi baten bidez (Celia Amorósek esanen lukeen bezala), eta emakumeon eta historian zehar pairatu dugun indarkeriaren gaineko sinesmen faltsu, mito eta jokabideak moldatzen ditu.

Iragana aztertzen badugu, ikusiko dugu, Mónica Alcalá

Hor eztabaida handia dago, sexu-indarkeria sexualitatea dagoen botere-baliatze bat baita. Garrantzitsua da adieraztea sexu-indarkeriak sexualitatearekin zerikusia duela. Zure gorputzean, zure sexualitatean du eragina.

Galánek dioen bezala, xvii. eta xviii. mendeetako ikusizko ikonografiak domeinuaren ideologia bat erakusten duela, sexu-indarkeriaren irudien bidez, emakumeen gorputz azpiratuekin eta munstrokeriatik irudikatutako erasotzailleekin. Batzuetan, epe laburreko azterketak egiten ditugu sexu-indarkeriari buruz, baina, iturrietan sakonduta, egiaztatzen duzu indarkeria continuum bat dela historian eta bortxaketaren kultura zirrikitu guztietan sartzen dela.

xv. mendetik xix. mendera bitarteko sexu-erasotzaileen ("estuprogeileak") profilen azterketak erakusten digu erasotzaileak ez zirela munstroak, gizon arruntak baizik. Denak ziren "estuprogeile": apaizak, morroiak, apendizak, batxilerrak, bizargileak...

Hori dela eta, garrantzitsua da xxi. mendean herrialde honetako emakumeen bizitzetan bortxaketaren kulturak utzi duen lorratzari buruzko ibilbide historiko bat egitea, eta aztertzea zer aldaketa sozialek eta kulturelek eman duten aukera estatu-mailako arau bat onesteko, lehena, emakume guztiek sexu-askatasuna eta sexu-indarkeriarik gabeko bizitzak izateko duten eskubidea bermatzeko helburua duena (Sexu-askatasunaren berme integralari buruzko 10/2022 Lege Organikoa).



SEXU-
INDARKERIAREN
BIKTIMA DIREN
EMAKUMEEKIN
GENERO-
IKUSPEGITIK ESKU
HARTZEA



BIZIPENA ETA ERREKUPERAZIOA SEXU-INDARKERIAKO KASUETAN. KONPLEXUA DENAREN TERAPIA

NORMA VÁZQUEZ GARCÍA
Psikoterapeuta feminista

Terapia ez da emakumeei nola sentitu behar duten esateko espazio bat, esperientziaren konplexutasunak aztertzeko espazio bat baizik. Konplexua denaren terapiarako espazioa da, bizipena eta errekupeazioa konplexuak baitira sexu-indarkeriaren kasuetan.


KONPLEXUA DENAREN TERAPIA:

- Kontzeptu horretatik abiatuta, sexu-indarkeriako gertaera batek sortzen duen trauma azaltzen eta lantzen ahal dugu. Trauma, dena den, ez da gertaeratik bereziki sortzen, psikean txertatzearen ondorioz baizik.
- Bortxaketa emakumeei gertatzen ahal zaien okerrena delako eta horretatik inoiz errekupeatuko ez direlako ideia, ideia patriarkala da, deseraiki beharrekoa.
- Sexu-indarkeriak, noski, oso egoera traumatikoak dira, baina emakumeek badituzte inguruneke baliabideak eta baliabide propioak, bizirauteko eta trauma landurik bizi izateko.
- Sexu-indarkeria emakumeen bizi-unean ere kokatzen da; horregatik, garrantzitsua da terapia indibidualizatzea, indarkeria gertatu zenean bizi zuten une pertsonala ulertzeko.

Garrantzitsua da, halaber, ulertzea zer esanahi duen indarkeriak haientzat, beren ingurunean eta beren historian. Biktimekin esku hartzearen alderdi konplexuena da esanahi hori dinamikoa dela, aldatu egiten dela. Lan terapeutikoak joan-etorriko une horietan lagun egin behar du, eta lagundu behar die beren bizipenak berreraikitzen eta berregitzen.

Emakume bakoitzak bide bat egin behar du bere emozioak identifikatzeko, haiei izena jartzeko eta ideiak ordenatzeko. Bidea, nolanahi ere, ez da beti salaketa eta epaiketa batean hasten edo bukatzen. Izan ere, emakumeek sentitzen dute egungo prozesu judizialean ez dagoela zalantzarako lekurik eta, gehienetan, ez dituztela emakumeen bizipen isildu eta kontraesankorrak erreparatzen, ez baitute beti sentitzen ustez sentitu behar dutena, eta ez baitute pentsatzen ustez pentsatu behar dutena, belaunaldiz belaunaldi transmititutako kanpo-aginduen eraginez.

Horregatik da hain garrantzitsua, terapiaz gain, "Ahizpa, sinesten dizut" eta antzeko mezuak jasotzea gizartean. Euskarri terapeutiko sendoa dira biktimentzat; beren buruarengan sinesten hasten laguntzen die, eta, hortik abiatuta, trauma lantzen eta beren bizitzetara berriz heltzen.



Sexu-eraso bat emakumeei gertatzen ahal zaien okerrera delako ideiak birbiktimizazioa dakar. Horrek ez du esan nahi gertaerak erlatibizatu behar ditugunik, berez traumatikoak baitira. Ez dizkiegu behin eta berriz bueltak eman behar, baizik eta ikusi nola txertatzen diren psikean, eta etengabeko birbiktimizazioa saihestu.



SEXU-INDARKERIAK, ANTZINAKO PRESKRIPZIOAK ETA EMAKUMEEN GORPUTZEN GAINEKO ARTIKULAZIO BERRIAK

RUT ITURBIDE RODRIGO

NUPeKo irakaslea eta ikertzailea. Cum Laude doktorea Giza eta Gizarte Zientzie-
tan. Zuzenbidean lizentziaduna.

Hitzaldian, Nafarroako Unibertsitate Publikoko gene-
ro-taldea gaur egun emakume gazteen kontrako sexu-in-
darkeriari buruz egiten ari den azterlan baten lehenbiziko
ondorioak partekatu dituzte.

AZTERLANAREN HELBURU NAGUSIA informazioa biltzea
da, jarduketa-estrategia egokiak ezarri ahal izateko.

Azken emaitzak diagnostiko bat eskainiko du, proposa-
men-ikuspegiarekin, emakume gazteen kontrako sexu-in-
darkeriaren prebentzioari, detekzioari, babesari, arretari
eta erreparazioari buruzko gaur egungo premia, eskaera,
problematika eta jardunbide egokien inguruan.

Metodologiari dagokionez,
teknika kuantitatiboan
ikuspegi mistoa aplikatu
da. Teknika horiek egoera
orokorraren eta teknika
kualitatiboan argazkia
eskaintzen dute, emakume
gazteen diskurtsoak
jasotzeko, bai eta sexu-
indarkerian esku hartzen
duten profesionalenak ere:
segurtasun-indarrak eta
-kidegoak, osasun-eremua
eta arretaren baliabide
espezializatuak.



Hausnarketa-prozesu bat egin behar da ulertzeko emakumeok sentitzen dugun beldurrak zentzua duela baina gure portaerak kontrolatzeko sexu-izu bihurtu dela.

Izutu gabe prebenitu behar dugu, eta prebentzio aktiboa eta ez-defentsiboa sustatu.

Beldurra bandoz aldatzen ahal da.

LEHEN ONDORIOAK:

EMAKUME GAZTEEK ZAILTASUN HANDIAGOA DUTE SEXU-INDARKERIA ZER DEN ETA ZER EZ DEN ZEHAZTEKO:

“Soilik bai da bai” legeak baimenari buruzko pertzepzioa handitu duen arren, batzuetan zailtasunak daude praktikan jakiteko zer den sexu-indarkeria.

NOLA PREBENITU DEZAKEGU IZUTU GABE?

Hausnarketa-prozesu bat egin behar da ulertzeko emakumeok sentitzen dugun beldurra zentzua duela baina gure portaerak kontrolatzeko sexu-izu bihurtu dela.

SUMISIO KIMIKOAREN BIDEZKO ERASOAK:

Oso salaketa gutxi daude, baina zerbitzu espezializatuetara jotzen dute erasoak jasan duten emakume anitzek.

Sinetz ez diezaieten beldur dira oraindik, batez ere oroitzen ez badute zer gertatu den, edo gehiegi edan dutelako erantzukizuna dutela uste badute, adibidez.

LEHENBIZIKO SEXU-HARREMANEN GARRANTZIA:

Egoera bereziki delikatuak eta ez-seguruak dira emakumeentzat, sexu-indarkeriari dagokionez.

INDARKERIA-MOTA BERRIAK AGERI DIRA, ETA INDARKERIA ERRAZTEN DUEN DISKURTSOA BERREGITURATU DA:

Hala nola tiktoklarien, instagrararen edo Youtubeko Shorten diskurtso-inboluzioa, iristeko erraztasun handia baitute eta 24/7 eskuragarri baitira, eta harreman afektiboetako erantzunkidetasunik eza (presebatiboa baimenik gabe kentzea —stealthinga—, eta pilula antikonzeptiboa prebentziorako erabiltzea, kasu).

IDENTIFIKATU DA ZER ESPAZIOTAN JASATEN DITUZTEN ERASO GEHIEN NESKEK:

etxebizitzetan bertan (etxebizitza partekatuak), garraio publikoan eta aisialdiko espazioetan (adibidez, diskotekatik kanpo, erretzera ateratzen badira) eta jende-pilaketetan (kontzertuak). Baita ikastetxeetan ere, bereziki komunetan eta gimnasioan.

BAIMENA AZTERTZEKO, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEAN DAGOEN EGITURAZKO DESBERDINKERIA-POSIZIOA KONTUAN HARTU BEHAR DA:

legeak eskubideak bermatzen ditu, baina desoreka dago teoria-
ren eta praktikaren artean. Batez ere, “grisetan” dituzte zailta-
sunak neskek; adibidez, sexu-harreman batean iritziz aldatzen
badira eroso ez daudelako edo seguru sentitzen ez direlako.

Baimenaren gaia konplexua da, gainera, eraso gehienak gizon ezagunek egiten dituztelako: hurbiltasunak “konfiantza” hori ematen die, eta erasotzeko baliatzen dute. Batzuetan, gainera, “gaizki-ulertua” izan delako aitzakia erabiltzen ahal dute.

EGITURAZKO ERRUA BARNERATZEN DA ORAINDIK ERE, BEHIN ETA BERRIZ AGERTZEN DEN NORBERAREN ERRU GISA:

dela egin duena, dela egin ez duena, dela egiteari utzi diona,
dela egin beharko zukeena...

AZTERKETA INTERSEKZIONALA EZINBESTEKOA DA:

kalteberatasun handiagoa duten edo gizarte-bazterketa egoeran dauden emakumeen egoera ulertzeko, hala nola emakume migratzaileena edo tutoretzapeko adingabeena.



SEXU-INDARKERIEN ARRETA INTEGRALEKO ZENTROA (SIAIZ)

MARI RECALDE GARCIA, SIAIZeko koordinatzailea
ANA CARMONA JUANMARTIÑENA, SIAIZeko abokatua

24 ORDUKO KRISI-ZENTROAK. Laguntza psikologikoa, juridikoa eta soziala ematen duten zerbitzuak. Etengabeko arretaren eta premiazko jarduketaren irizpideen arabera, laguntza eta laguntza emango diete biktimei, senideei eta inguruko pertsonari krisi-egoeretan. Zentro horietan sartzen dira laguntza eta telefono bidezko eta aurrez aurreko informazioa, eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan.



Sexu askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022, Lege Organikoaren 35. artikulua, laguntza integral, espezializatu eta eskuragarriko zerbitzuak jasotzen dituen.

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko Nafarroako Erakunde arteko III. Akordioaren esparruan, besteak beste, emakumeen kontrako indarkeriaren aurreko jardun integraleko neurriak koordinatzeko eta kudeatzeko eskumenak ditu NABIk.

Sexu-askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren babespean, Sexu-indarkerien Arreta Integraleko Zentroa (SIAIZ) ireki eta abiarazi zen 2024ko apirilean. Arreta espezializatua ematen die egungo eta iraganeko sexu-indarkerien biktimak eta bizi-raule diren 16 urtetik gorako emakumeei.

ZERBITZUAK
ETA INFORMAZIOA
EDOZEIN SEXU
INDARKERIAREN
EGOERAREN
AURREAN

SEXU- INDARKERIEN ARRETA INTEGRALEKO ZENTROA

☎ 848 463 999
✉ caivs@fundaciongizain.es
🌐 www.caivs.es

caivs  siaiz

 Instituto
Navarro
para la Igualdad

 Nafarroako
Berdintasunerako
Institutua

LAGUNTZA
PSIKOLOGIKOA,
SOZIALA, HEZKUNTZA
ARLOKOA ETA
JURIDIKOA

365 EGUN
24 ORDU

PREBENTZIOA ETA
SENTSIBILIZAZIOA

AURREZ AURREKO
ZEIN TELEFONO
BIDEZKO ARRETA
ETA ARRETA
TELEMATIKOA



SEXU-INDARKERIEN ARRETA
INTEGRALEKO ZENTROA (SIAIZ)

BALIABIDEAK ETA ARRETA

Baliabide hau doako zerbitzua da; urteko 365 egunetan, eguneko 24 orduetan dago zabalik, eta honako hauei ere ematen die arreta:

- Biktimen familia eta ingurune hurbilenekoak, arreta eta laguntza espezializatua behar badute.
- Zentroko langileen aholkularitza behar duten profesio-nalak.

Ez dago inolako baldintzarik errekurtsua eskuratzeko, ezta poliziaren aurrean salaketa jarri izana ere. Sexu-indarkeriaren biktima den 16 urtetik gorako edozein emakume joan daiteke zentrora, bere administrazio-egoera edozein dela ere.

LANTALDEA

Diziplina anitzeko talde batek osatzen du zentroa:

- **GIZARTE-LANGILEAK.** Zentrarako sarrera dira: harre-ra egin, entzun eta berehalako laguntza emozionala eskaintzen dute. Haien lana garrantzitsua da oso; izan ere, emakumekin egiten duten loturaren arabera, gero zentrora itzuliko dira edo ez, jasandako bizipena lantzeko.
- **GIZARTE-HEZITZAILEAK.** Krisi-testuinguruetan esku hartzen dute, banaka zein taldeka, eta lagun egiten dute bizi izandako esperientzia erreparatzeko eta berreskuratzeko hezkuntza-prozesuan.
- **PSIKOLOGOAK.** Esku-hartze psikologikoa egiten dute, larrialdi- edo krisi-egoeran zein errekupeazio-terapi-an. Inpaktu emozionala ebaluatzen dute, eta plan pertsonalizatuak egiten dituzte.
- **ABOKATUAK.** Emakumeei aholkularitza juridikoa eta informazioa ematen diete jakin dezaten zer eskubide dituzten, eta ikuspegi errealista ematen diete epaite-gian gertatuko denaren inguruan, beren erabakiak har-tu ahal izan ditzaten.

Taldeak txandaka egiten du lan, eta asteburuetan ere ematen da arreta, hala galdegin baitute zenbait emakumek, familia-bizitzarekin bateragarria izan dadin.

Zentroan urteko 365 egunetan eguneko 24 orduetan dauden figura profesionalak gizarte-hezitzaileak eta psikologoak dira.

ESPAZIOA

Instalazioak irisgarritasun unibertsala bermatzeko eta bertarutzen diren emakumeak seguru eta ongi hartuak sentitzeko diseinatu dira.

Zentroak bi sarrera ditu, hala galdegiten duten emakumeen anonimotasuna gordetzeko.





ITXAROPEN GUNE – LUGAR DE ESPERANZA ELKARTEA

MARIMAR OSÉS LAREQUI

AGAR programaren koordinatzailea

ITXAROPEN GUNE – LUGAR DE ESPERANZA ELKARTEA (AIGLE) 2004an eratu zuen Iruñean, irabazi asmorik gabeko elkarte gisa, 1980tik gizarte-arazoak zituzten emakumeei laguntzeko zenbait erakundetan lan egiten zuten profesionalen talde batek.



2005ean, AIGLEk gizarte-bazterketa larrian dauden emakume etorkinendako (nagusiki prostituzioarekin lotutakoendako) berariazko proiektu bati ekin zion (Agar Proiektua), garapen pertsonalerako, gizarteratzerako eta laneratzerako programak eta jarduerak egiteko.

Emakumeenganako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen arabera, indarkeria horren adierazpenak dira emakumeen eta nesken salerosketa eta prostituzioa eta/edo sexu-esplotazioa. Gainera, adierazi du emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta eta sendabidea emateko sarea sexu-indarkeriaren biktimentzako errekupeazio- eta arreta-zerbitzu espezializatuek eta salerosketaren biktimentzako arreta integralak osatu behar dutela.

Horregatik, 2018an, hitzarmen bat sinatu zen Itxaropen Gunerekin, sexu-esplotaziorako salerosketatik bizirik aterazi ziren emakumeentzako harrera-zerbitzu bat izateko, esparru horretan lan egiteko prestakuntza eta esperientzia duen talde batek zuzenduta. Baliabide honek 2 plaza ditu.



PROGRAMA AGAR

El programa AGAR es un programa de apoyo a las mujeres en situación de vulnerabilidad, que busca mejorar su calidad de vida y su bienestar emocional, brindando un lugar de acogida para poder recibir atención de calidad.

En el programa se ofrecen talleres de apoyo a las mujeres en situación de vulnerabilidad, que buscan mejorar su calidad de vida y su bienestar emocional, brindando un lugar de acogida para poder recibir atención de calidad.

2020an, Itxaropen Gunerekin sinatutako hitzarmena zabaldu egingo da, eta zazpi plaza prestatuko dira prostituzio-testuinguruak uztea erabakitzen duten emakumeentzat. Bi egoitza-baliabideek arreta espezializatu eta espezifiko eskaintzen dute, eta aldi baterako harrera errazten dute, segurtasun pertsonala eta emakumeen errekupeazioa bermatzeko.



Itxaropen Gune - Lugar
de Esperanza elkarte

Prostituzioan, emakumeen kontrako indarkeria mota guztiak agertzen dira: fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa, soziala eta sexuala. Kasu gehienetan, gainera, emakumeak estres-egoeretan izan dira: irregulartasun-egoerak, kalean atxilotuak izateko beldurra, beren herrialdera kanporatuak izateko beldurra, gaixotasunak hartzeko beldurra... Gainera, karga ekonomikoak dituzte denek, jatorrizko herrialdeetako beren familien ardura baitute.

Emakume batzuek ez dute mintzatu nahi jasandako indarkeriei buruz, eta hortik abiatuta eman behar zaie arreta, beren aukera errespetatuz. Itxaron behar da horri heltzen ahal dioten arte. Bestalde, mintzatu eta jasandako indarkeria tratatu nahi dutenei, prozesuaren berri eman behar zaie eta errealismoz eman informazioa.

Emakume bakoitzarekin berariazko helburuak ezartzen dira, epe laburrerakoak zein luzerakoak, errealistak eta operatiboak, itxaropen faltsurik sortu gabe. Garrantzitsua da jakitea zerk sentiarazten dituen ongi eta zer lortu nahi duten. Kaltetuta etortzen dira emakume horiek, baina badituzte proiektu pertsonalak, eta entzun egin behar zaie, beren helburuak diseinatzeko beraiekin batera.

Esku-hartzean, “defizitean” —emakume horiei falta zaiean— oinarrituta lan egiteaz gain, haien indarguneetan ainguratu ere egin behar da. Oso emakume erresilienteak dira, eta beren jatorrizko herrialdeetan jasandako indarkeria-historiekin iristen dira. Borondate handia izaten dute beren errekupeazio-programak lantzen hasten direnean. Gaitasunak berreskuratu behar dira, eta hortik abiatuta lan egin.

Emakume guztiek bizi-egoera desberdinak dituzte, eta emakume bakoitzaren erritmo pertsonalera egokitu behar dira programa, helburuak eta jarduketak. Emaitzak lortzeari ez ezik, garrantzia ematen diogu emakumeendako erreferentzia-gune izateari, sendatzeko eta aldatzeko prozesuei aurre egiteko.

SEXU- INDARKERIA BERRIAK



ESPAINIAN SEXU-INDARKERIA DIGITALA DESAGERRARAZTEKO ETA PREBENITZEKO GAKOAK ETA ERRONKAK.

ELISA GARCÍA MINGO

Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko irakaslea. DIVISAR (Digitalización de la Violencia Sexual, 2022-2025) proiektuaren ikertzaile nagusia.

Indarkeria digitala aztertzen dugunean, oso gutxi aztertu den gai bat lantzen hasi behar dugu: sexualitate digitala.

INDARKERIA DIGITALAK BI EZAUGARRI DITU:

1. Oso indarkeria normalizatuak dira: kaleko jazarpena hutsala dela eta normalizatuta dagoela pentsatu eta garrantzirik ematen ez diogunean bezala.
2. Indarkeria hori arlo digitalaren bidez hazten ahal da, Pelicot kasuak erakusten duen bezala: emaztea bitarteko digitalen bidezko negozio bihurtu zuen erasotzaileak, eta grabazioen edukia igotzeko, gordetzeko, partekatzeko eta abarretarako sortu diren webguneetara sartu zen.

Gizarte digitalak, bitartekaritza teknologikoak, bizitza sozialaren amplifikazioak eta gure eguneroko bizitzak plataformen esku utzi izanak konplexutasun-geruza bat gehitu diote Z eta Alpha belaunaldietako sexu-indarkeriari.

Ulertu behar dugu hein handi batean digitala dela Z belaunaldiaren sexualitatea (1995etik aurrera jaiotakoak), baina Alpha belaunaldiarena ere (2010etik aurrera jaiotakoak).

3 Pelicot casuari buruz, ikusi Carla Vall i Duráñen hitzaldiaren oin-oharra.

Hori da OnlyFansen kasua, plataforma eta negozioa, orain nagusiki erotikoak diren edukiak (batez ere emakumeenak) sortzeko. OnlyFans ez da fenomeno, teknologiak erraztu-tako sexu-indarkeriaren barruko artefaktu bat baizik.



Sexu-indarkeria digitala aztertzeak gizarte digitala aztertzerantz narama. Aldatu den gizarte bat, umiliazioan eta zigorgabetasunaren kulturean oinarritu dena, non gobernuen ordez teknologia-enpresa handiek gobernatzen baitute. Hori guztia plataforma-kapitalismo batean gertatzen ari da, kontrolaren kapitalismo digital batean.

Gizarte horri begiratu behar diot ulertzeko zergatik dagoen negozio bat pornografiaren, “nude”-en eta manosferaren inguruan. Inoiz ez da orain adina mekanismo izan emakumeen gorputzak eta bizitzak kontrolatzeko.

66

TEKNOLOGIA-
ENPRESEKIN
LAN EGIN BEHAR
DA, ETA HAIEKIN
KONTSENTSUAK
LORTU, DISEINUAK
ETA NEGOZIOAK
ARAUTZEKO ETA
HAIEN INGURUAN
LEGEAK EGITEKO.

66

ENPRESA HORIEK
SEXU-INDARKERIEKIN
ABERASTEN ARI DIRA,
HORIEK, AZKEN BATEAN,
BEREN IRABAZI-
ESTRATEGIAREN
BARNEAN BAITAUDE,
ZENBAT ETA BIRALAGOA
IZAN ORDUAN ETA
NEGOZIO HANDIAGOA
EMATEN DIETELAKO.



EZ NAZAZU ROROONEATU: ZIBERMISOGINIAREN KONTAKIZUNAK

CARMEN RUIZ REPULLO

Granadako Unibertsitateko irakaslea. Genero-indarkeriaren, sexu-indarkeriaren


Laurogeita hamarreko hamarkadaren bukaeraz geroztik, ikusi dugu biktima bizirauleek kontaktu egin dituztela jasan dituzten indarkeriak. Biktinek beren isiltasuna arlo digitalaren bidez hausten ikasi dute, eta hori ez zaio interetsatzen sistema patriarkalari. 2016tik aurrera, neskak sexu-indarkeriako egoerak identifikatzen hasi zirenean, erreakzio patriarkal digital bat gertatu zen isiltasunaren haustura horren aurrean. Gaur egun, mutikoen diskurtsoekin isilarazten dituzte neskak, errealitatea, datuak eta “Soilik bai da bai” legea bera ukatuta. 10/2022 Legearen helburua da kaltearen erreparazio integrala egitea identifikazioaren, balorazioaren eta erreparazioaren bidez, baina badira oraindik identifikatu ez diren sexu-indarkeria mota batzuk. Garrantzitsua da jakitea nola erreparatuko den oraindik identifikatu ez duguna. Eta, identifikatu ondotik, benetako kaltea ikusteko balorazio-tresnak izatea.

Neska nerabeek oraindik kontuan hartzen ez den kalte sozial bat jasaten dute. Haiek kontaktzen ari zaizkigu jada; jada jasotzen ari gara nesken kontakizunak “hau da bizi izan dudana kaltea” esaten digutenak: herriz aldatzea, institutuz aldatzea, neure burua bakartzea, sare sozialetatik ateratzea, bikotekiderik ez izatea, nire herrian parrandan ez ateratzea.

Horrekin lotua dago neska-mutikoak konbentzitu nahia indarkeriarik ez dagoela, “anekdota” baino ez dela, Celia Amorósek salatu zuen bezala. Horrekin lotua dago, halaber, neskak berriz isilik gelditzea eta haiei errua, erantzukizuna eta lotsa egozten jarraitzea.

OSO ZAILA DA ONDORIO BAT KAUSA GISA AZTERTZEA.

Horretarako bidea ematen duen eta hori legitimatzen eta normalizatzen duen sistema da kausa. “Ez kargatu argazkirik” edo “ez eduki sare sozialik” aholkatzen dugunean, hatzari erreparatzen diogu, eta ez ilargiari. Errua mugikorri eta sare sozialei leporatzen diegun bitartean, ez dugu testuinguru patriarkala ikusiko.



Biktimak agente izan daitezen sustatu behar dugu. Erabatekoa izan behar du biktimei laguntzeko prozesuak.

Ikastetxeek esku hartzeko prest egon behar dute beren ikasgelako hiru mutikok lehen hezkuntzako 6. mailako neska bati sexu-erasoa egiten dioten kasua bezalako egoeretan.

Uste genuen espazio digitalak emanen zigula inongo espaziok eman ez digun segurtasuna? Espazio bat ere ez da segurua. Guztiak patriarkalak dira.

**GENERO—
INDARKERIA
ADINGABEEN
ARTEAN**



GENERO-INDARKERIA ADINGABEEN ARTEAN. HAURREN KONTRAKO SEXU-INDARKERIA GAI FEMINISTA DA

NEREA BARJOLA RAMOS

Feminismoetan eta Generoan doktorea

Indarkeria matxistaren mota larrienetako bat izan arren, haurtzaroko sexu-indarkeriak ez du behar duen arreta jaso mugimendu feministaren eta haren agenda politikoaren barruan.

Haurren kontrako sexu-indarkerian ezkutuko zifra handiagoak daude genero-indarkerian baino. Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, bost neskatik batek eta hamahiru mutikotik batek jasan dute sexu-indarkeria haurtzaroan.

Genero-aldagaiak eragina du neskek eta mutikoek jasaten duten indarkeria-motan. Profesional anitz ados daude 8 edo 9 urtera arte hurrek antzeko indarkeria jasaten dutela baina pubertaroa iritsi eta emakume gisa irakurriak izaten hasten direnean nesken biktimizazioa hirukoiztu egiten dela. Funtsean, familian gertatzen da indarkeria hori, eta, feminismoak erakunde patriarkal gisa kontzeptualizatu duen arren, ez dugu hitz egiten familiaren barruan gertatzen den sexu-indarkeriaz.

Sexu-askatasunaren defentsak alde batera utzi ditu neskek eta mutikoak, eta alde batera utzi du sistema patriarkala betikotzeko haurtzaroko sexu-indarkeriak duen funtsezko rola.


Haurren kontrako sexu-indarkeria gai feminista da, indarkeria matxista bat baita.

Zaila da ulertzea matxismoa neskei eta mutikoei ere eragiten dien paradigma sozial eta kultural bat dela, eta ez soilik emakumeei eta neskei eragiten dien gai ideologiko bat. Izan ere, horrela egitea egitura patriarkal oso bat ikusezin bihurtzea da, mutikoek ere indarkeria matxista jasotzen baitute, eta, hala, jasaten duten indarkeriaren azterketa zorrotza egitea eragozten ari gara.


Matxismoa paradigma bat eta sistema politiko bat da. Horrela ikusi behar dugu.

ERASOTZAILEEN PROFILA

Erasotzaileen
% 90-95 gizonak dira



ERASOTZAILEEN PROFILA %





NEREA BARJOLA



MATXISMOA PARADIGMA POLITIKO, SOZIAL ETA KULTURALA DA, ETA HAURREN KONTRAKO SEXU- INDARKERIA SISTEMA HORREN PARTE DA; HORRENBESTEZ, INDARKERIA MATXISTA DA.

Sexu-indarkeriari buruz hitz egiteko irudikapen-sistema bat dugun bezala, badugu haurtzaroko sexu-indarkeriari buruzko irudikapen-sistema bat ere, indarkeria hori isilarazteko, kontzeptualizatu dugun modutik abiatuta. Lloyd deMause-k bere *Haurtzaroren Historian* dioen bezala: “Lehen, haurrak «ez ziren existitzen»: biztanleriaren artean nahasten ziren, eta helduen eraso jasaten zuten”.

Sonia Vaccaroren arabera, haurren kontrako sexu-indarkeria patriarkatuaren eta matxismoaren zerbitzura dago, sistema politikoa diren aldetik. Matxismoak haurren kontrako sexu-indarkeria sortzeko duen tresna indartsuenetako bat helduzentrismoa da: haurren kontrako indarkeriak hartzen duen forma berezi bat, helduen eta neska-mutikoen arteko botere-harreman asimetrikoa sortzen duena.

Haurren kontrako sexu-indarkeriak funtzio soziala du matxismoaren barruan, hori antolaketa politikorako modua den aldetik:

- Botere-abusuak, neskatoen eta neska nerabeen gorputzaren kosifikazioak, sexualitatea gizonen esku dagoen kontrol-mekanismo gisa erabiltzen duelako.
- Neska-mutikoen sexu-askatasunaren kontrako indarkeria delako, eta kontrola, diziiplina eta gizonen haien gorputzak nahi erara erabiltzea dakarrelako



FUNTSEZKOA DA INDARKERIA HORI IKUSPEGI FEMINISTATIK ADIERAZTEKO AUKERA EMATEN DUEN PARADIGMA BERRI BATERANTZ JOATEA, EZTABAIDA PUBLIKOAN ETA MUGIMENDU FEMINISTAREN AGENDA POLITIKOAN KOKATZEKO.

Izan ere, isiltasuna gai politikoa da, eta funtzio soziala ere badu haurtzaroko sexu-indarkeriaren esparruan. Isiltasunean errua, lotsa, kaltea eta konpontzeko ezintasuna agertzen dira; bizitzan egoteko ezintasuna agertzen da.

Sexu-indarkeriaren kontakizunak entzuteko zailtasunari aurre egin behar diogu. Lekukotza politikoki eraldatzailea da. Lekukotzarik gabe ez gara kontzeptualizatzeko gai. Emakumeok gara jasun dugun indarkeriak kontzeptualizatzeko lekukotza hartu dugun lehenbizikoak, feminismoaren esparruan.

Horrenbestez, haurren kontrako sexu-indarkeriari feminismotik aurre egin behar zaio, arrazoi hauengatik:

- Ikuspegi feministak eduki politikoa ematen dio haurtzaroko sexu-indarkeriak duen egiturazko izaerari.
- Aukera ematen du egun nagusi diren ereduak, balioak eta arauak deseraikitze eta haurren kontrako sexu-indarkeriaren jatorria eta dinamika espezifikoak ulertzeko ere.
- Haurtzaroaren ikuspegia, berez, ez da aski haurtzaroko sexu-indarkeriaren inguruko faktore guztiak azaltzeko. Ez zaio logika neutral batetik heltzen ahal.

SEXU-
INDARKERIAK
INTERSEKZIO-
NALITATETIK



SEXU-INDARKERIAREN TRAUMA GATAZKA- EDO DESERROTZE- TESTUINGURUETAN

NORMA VÁZQUEZ GARCÍA
Psikoterapeuta feminista

Sexu-indarkerian, funtsezkoak dira testuingurua zein ingurunearen erantzuna, baina hemen “trauma konplexua” bi errealitate oso zehatzen bidez azalduko dugu: gerren testuingurua eta migrazioa.

GERRA-TESTUINGURUETAN. Ez gara gerrei berei buruz ari, baizik eta gerra ondotik, armak isiltzen direnean eta emakumeak gerran bizi izan zutena kontatzen hasten direnean gertatzen denaz. Zehazki, El Salvadorko gerra zibilean parte hartu zuten emakumeekin egin genuen lanaz, eta haiengandik jaso genituen lekukotzez.

El Salvadorko Egiaren Batzordearen Txostenean (1993), ez zen jaso emakumeek jasandako sexu-indarkeria gerra-krimen gisa.

Kolonbiako Egiaren Batzordeak, ordea, bai, jaso zuen eragile guztiek (armadak, paramilitarrek eta FARCEk) egindako sexu-indarkeria. Sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumeen duintasunaren aldeko egun bat ere ezarri da, eta erreparazio-neurriak daude.

El Salvadorren, ordea, emakumeen isiltasunak historia traumatiko bihurtu ditu, 30 urte geroago ukitzen oso zaila den trauma.

Gerra-testuinguru batean, non sexu-indarkeria normalizatu eta hura egunez egun bizitzen baituzu, ez dago adostasunik. Ezin duzu “ez” esan, zure bizia arriskuan baitago. Bizirik jarraitzeko borrokatzen zarenean, hitzez hitz, beste dimentsio batzuk hartzen dituzte kontzeptuek. Baimenak beste dimentsio bat hartzen du aukeratzeko gaitasunik ez duzun eta zeure burua defendatzeko gaitasuna baino ez duzun testuinguruetan.

Psikea ere egituratzen du isiltasunak. Ezin duzu esan “ora-in, esadazu”, 40 urtez isilik egon ondotik. Proposamenak desberdina izan behar du isiltasun luzeak hausteko prozesuetarako, haiek jaso eta baliozkotzeko testuinguru sozialik ez duten trauma konplexu eta sustraituetarako. Area-go, testuinguruak ukatu egiten badu hori gertatu dela.

Gerra-testuinguru batean, non sexu-indarkeria normalizatu eta hura egunez egun bizitzen baituzu, ez dago adostasunik. Ezin duzu “ez” esan, zure bizia arriskuan baitago. Bizirik jarraitzeko borrokatzen zarenean, hitzez hitz, beste dimentsio batzuk hartzen dituzte kontzeptuek.

Baimenak beste dimentsio bat hartzen du aukeratzeko gaitasunik ez duzun eta zeure burua defendatzeko gaitasuna baino ez duzun testuinguruetan.



MIGRAZIO-TESTUINGURUETAN. Migrazioaren aurretik proiektu ekonomikorik ez baizik erbesteratze edo jazarpena duten eta Espainiara iristen diren emakumeak “gorputz arrazializatu” gisa irakurtzen dira.

“Hainbat kontu imajinatzen dituzte zuri eta zure gorputzari buruz, eta modu sexual batean tratatzen zaituzte. Sexu-indarkeria gure gorputza sexualizatzen duen etengabeko begirada bat da”.

Bestalde, zaintzen sektoreko emakume migratzaileen kontrako indarkerian sexismoa eta arrazakeria nahasten dira.

Emakumeen % 69 barne-erregimenean bizi ziren, eta adinekoak zaintzen ari ziren.

% 49ri ez zieten atseden-denbora errespetatzen, batez ere gauez.

Kontua da ez dela lana kontratatzen, baizik eta kontratatzen duenarentzat erabat eskura dagoen pertsona bat. Indarkeria eta arrazakeria etengabearen testuinguru horretan, enplegatzaileen sexu-erasoa ere jasaten ahal dute.

Zaila da kasu horiek lantzea, trauma oso konplexuak baitira. Egoera horietan, ikusi nahi dut testuinguruan zer den baimena, zer den erabakitzeko ahalmena, zer ahalmen zuen emakumeak kontra egiteko edo ez egiteko eta, batez ere, zer tresna erabili zituzten, bizirik iraun baitute.

Lan terapeutikoa, ondorioz, senez erabili zenituen estrategia horiek ahalik eta gehien zabaltzean oinarritzen da. Indarra areagotu nahi dut, eta errekuiperatzeko gai izan zaitezen

66

Emakume horiek izan duten traumaren bizipena psikean txertatzeak kalteberago egiten ditu. Baina ez dira emakume kalteberak.

Hori hizkeratik kentzera gonbidatzen zaituztet.

Kalteberatasun-egoeran jartzen ditugu (politikak, enpleguak, ikusezin bihurtzea). Ez da haien erantzukizuna, gizartearena baizik.



DESGAITASUNA DUTEN EMAKUME ETA NESKEN KONTRAKO SEXU- INDARKERIA: BEREHALAKO EKINTZARAKO ORIENTABIDEAK

ANA PELÁEZ NARVÁEZ

CEDAWeko (NBE) lehendakaria. CERMI Mujeres Fundazioaren lehendakariordea.
Europako Desgaitasunaren Foroaren idazkari nagusia

Emakumeen kontrako Indarkeriari buruzko Nazio Batuen errelatore bereziak aztertu zuen desgaitasuna duten nesken eta emakumeen kontrako indarkeriaren gaia, 2012an.


Indarkeria hori kontzeptualizatu zen txostenean, eta ez da berdin-berdina, eta ez da berdin gertatzen desgaitasuna duten nesken eta emakumeen kasuan.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO BATZORDEA maila globalean, eskualdekoan eta estatukoan dagoen tresna da, desgaitasuna duten emakumeek eta neskek beste edonork dituen eskubide berberak eta askatasun berberak dituztela aitortzen duena.

JOERA DAGO OSO BIZTANLERIA ZABAL ETA ASKO-TARIKOA HOMOGENEIZATZEKO. Desgaitasuna duten emakumeen kasuan, berezitasun batzuk hartzen ditu emakumeen kontrako indarkeriak, eta ezagutu behar dira. Indarkeria horiek ezkututzen ohi dira; ez ohi dira salatzen, eta ez ohi dituzte indarkeriatzat jotzen, ezta biktimek berrek ere.

OMEren arabera, munduko 5 emakumetik 1ek desgaitasunen bat du. Batzuetan, desgaitasun aitortua da, agerikoa. Beste batzuetan, emakumeak ezagutzen duen baina dauden estereotipo diskriminatzaileen ondorioz ezkututzen den indarkeria bat da.

INDARKERIA HORIEK EZ DITUZTE SOILIK BIKOTEKI-DEEK EDO BIKOTEKIDE OHIEK EGITEN, ETA OSAGAI SOZIAL ETA INSTITUZIONAL OSO GARRANTZITSUA DUTE. Indarkeria horiek ingurune itxi eta bereizietan gertatzen dira, haietan bizi izaten baitira emakume horiek, eta haietan ematen baitute egunaren zati handi bat. Adibidez, eguneko zentroak, okupazio-zentroak, ospitale psikiatrikoak, espetxe-inguruneak... baina baita emakumeei arreta ematen dieten zerbitzuetan ere, hala nola ginekologia- eta obstetrizia-zerbitzuetan. atienden a las mujeres, como servicios de ginecología y obstetricia.



ZER EGIN DEZAKEGU? ZENBAIT PROPOSAMEN

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MOTA GUZTIAK PREBENITZEKO ESTRATEGIAK GARATZEA prestakuntza eman behar zaie desgaitasuna duten neska eta emakumeei familian, eskoletan (baita hezkuntza berezikoetan ere) eta abarretan jasaten dituzten indarkeria horiek hautemateko.

ELKARLANA ETA LANKIDETZA ERATZEA SEXU-INDARKERIAN ADITUAK DIREN ERAKUNDE FEMINISTEN ETA DESGAITASUNA LANTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN.

DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEN BERARIAZKO ERAKUNDEAK SUSTATZEA. Ez dago horrelakorik, ez maila globalean, ez EBn, eta Espainian ia ez dago.

AGINTARI INDEPENDENTEEK GAINBEGIRATZEA DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEAK ETA NESKAK DAUDEN GUNE GUZTIAK, eta desgaitasuna duten pertsonen baina emakume eta nesken ere zuzendutako programa eta zerbitzu guztiak, zerbitzu ginekologikoak, obstetriziakoak eta osasun mentalekoak barne.

GENERO-INDARKERIAREN, SEXU-INDARKERIAREN ETA SEXU-SALEROSKETAREN ETA -ESPLOTAZIOAREN INGURUKO ZERBITZU INTEGRALETARAKO SARBIDEA BERMATU BEHAR DA.

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAN ESPEZIALIZATUKO ZERBITZUEN IRISGARRITASUNARI BURUZKO AUDITORETZA EGITEA eta bermatzea probintzia bakoitzean genero-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktimendako babesleku irisgarri bat dagoela gutxienez.

PROFESIONAL GUZTIAK TREBATZEA DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEN KONTRAKO GENERO- ETA SEXU-INDARKERIARI AURRE EGITEKO. Mugimendu feministak laguntzen ahal du horrek dakarren lanean.

GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMENDAKO LAGUNTZA PERTSONALAREN FIGURA GARATZEA, GENERO INDARKERIAREN KONTRAKO ESTATU ITUNAK JASOTZEN DUEN BEZALA. Figura hori oraindik ez da garatu prozedurari dagokionez, eta ez da erabiltzen ari.

PROZEDURA JUDIZIALEN ZAINZA SUSTATZEA EMAKUME GUZTIEN ERABATEKO BAIMENA ZIURTATZEKO, nahiz eta judizialki ezgaituta egon. Ezgaitasun horrek ez du izaterik jada, 2021ean ezabatu baitzen figura hori Zigor Kodean. Emakumeen legezko gaitasuna berrezarri behar da, ezarritako prozeduren bidez.

BIKTIMEN ERREKUPERAZIO ETA ERREHABILITAZIO INTEGRALA, horrek berekin dakar herrialde honek aitortzea nolako izugarrikeria egin den baimenik gabe antzutu dituzten emakume eta neskekin.

DESGAITASUNA PRESAZKO PROZEDURAZ AITORTZEA GERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI, arreta egokia jaso ahal izateko. Desgaitasunaren inguruko sareak ere esku hartu beharko du, emakume horrek bere bizi-egoera berria onar dezan.

DATU OFIZIALAK ESKURAGARRI IZATEA estrategia egokiak egiteko eta esku-hartze egokiak planifikatzeko. Makroinkesta⁴ zehatz bat egitea, erakundeetan dauden neskak eta emakumeak barne hartuko dituena.

AUTONOMIA-ERKIDEGOETAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN BERARIAZKO BEHATOKIETAN BERMATZEA desgaitasuna duten emakumeen ordezkarri bat dagoela gutxienez. Ez baldin bagaude, ez zaigu entzuten.

~

4 “Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko makroinkestako (2019) datuek icebergaren tontorra baino ez dute erakusten. Gogoan izan behar dugu makroinkesta telefonoz bideratu zela, horrenbestez bide horretatik erantzuten ahal zuten emakumeei soilik, eta % 33tik gorako desgaitasuna egiaztatuta zuten emakumeei baino ez”.

**SEXU-
INDARKERIAREN
AURKAKO
ERRESISTENTZIA
ETA ESTRATEGIA
FEMINISTAK**



MEMORIA KOLEKTIBOA INDARKERIAREN KONTRAKO ARMA GISA: LEKUKOTZA ETA SAREAK

CRISTINA FALLARÁS SÁNCHEZ

Escritora y periodista

Sare sozialek eman diguten tresnari esker (X, WhatsApp...), emakumeek publikoki kontatu ahal izan dituzte bizi izan dituzten indarkeriak. Iraultza bat bizitzen ari gara, iraultza hitzaren zentzu gordinenean. Iraultza oro komunikazio-aldaketa bati loturik dago.

Hauek izan dira komunikazioaren orain arteko hiru aldaketa nagusiak:

- Idazketa.
- Inprenta
- eta gaur egun bizi duguna, Internet

Horren zikloiaren zurrunbiloan gaudenez, ezin gara kontzienteki ohartu zer dakarren emakumeok gure kontakizunekin egiten ari garenak.

Emakumeok ez dugu inoiz eduki kapitala gure esku, eta masa-hedabideak ez dira kapital-inbertsiorik gabe existitu. Hedabide berriak (Internet eta sare sozialak) komunikazio-modu berriak dira, eta ez dute kapital-inbertsiorik behar kontakizun bat sortzeko eta zabaltzeko. Eta emakumeok sareak okupatzen, bizitzen eta kolonizatzen hasi gara gure kontakizunekin.

Lekukotza horiek indarkeria matxistaren memoria kolektibo bat dira, historia osoko lehenbizikoa.

Era berean, erakusten dute eraso horien berri ematea eragotzi/debekatu dietela emakumeei, hedabide, erakunde eta eremu intimoek.

#MeToo zenbait hamarkadatan izan den mugimendu iraultzaileena da, zainetik eta funtsean aldatzen baitu zer garen. Ez bakarrik emakumeok zer garen, baita gizonak, hezkuntza, medikuntza, kultura, mundua bizitzeko modua eta abar zer diren ere. Emakumeok zer garen, eta gizarte gisa zer garen.

Orain, #SeAcabó mugimenduan, Instagramen, emakumeak nor diren kendu, eta haien kontakizuna partekatzen dut.

Lekukotzaren potentzialaz ohartu nintzenean, “Cuéntalo” mugimendua abiarazi nuen, kontakizunak horizontala izan behar zuela oinarritzat hartuta. Hau da, izan ez zitezela aktoreak edo ospetsuak soilik.

Eta ez zuen “nik ere...” izan behar; bakoitzak bere hitzekin kontatu behar zuen zer bizi izan zuen, halako moldez non bata bestearen atzetik memoria kolektibo bihur zitezen.

Hemen aktibista gisa nago, ezin naizelako komunikazioko aditu gisa egon. Izan ere, nik egiten dudana, hau da, istorioak bildu eta partekatzea, ez da komunikaziotzat hartzen.

Idazle eta kazetari gisa, badakit inprentak ez zuela askapena ekarri, baizik eta emakumeen eta biztanleriaren beste sektore batzuen isiltasunaren eraikuntza bat, haiek ez baitzuten erabakitzen zer argitaratzen zen eta zer ez, kontrol-mekanismo gisa erabili dena.

KONTAKIZUN BERRIAK, SEKULA IKUSI GABEA BAITA ETA #METOO ETA #CUÉNTALO MUGIMENDUEN SORRERA ABIAPUNTU HARTU BAITU, EREMU PUBLIKOAN ZEIN EREMU PRIVATUAN ERROTIKO ALDAKETA EZARTZEN DUTEN IDENTIFIKAZIO-MEKANISMOAK SORTZEN DITU.

Eremu publiko guztietan, gizonen bizitza aldatu dute gure kontaktuzunek. Haiek ez dira aldaketa horretan esku hartzen ari; bizi diren errealitatea aldatzen ari gara gu, eta, errealitate hori aldatzen ari garen heinean, haien bizitzetan esku hartzen ari gara.

“Indarkeria matxista” deitzen zuten abstrakzioa ez zen memoria kolektiboa. Abstrakzioa eztabaidagarria eta ezeztagarria da. Lekukotza ukaezina da. Emakumeok atera ginen geure burua kontatzera. Urrats erraldoia egin dugu. Genealogia bat eta ekintza-transmisio bat eraikitzen ari gara.

Lekukotzek ezkutuko memoria ere aktibatzen dute. Idazten didaten emakume anitzek esaten didaten lehenbiziko gauza hau da: “honetaz oroitu naiz, lekukotza hori irakurri dudanean”. Memoria kolektiboa etorkizunerako arma bat da. Gure historia etorkizunera jaurtitzeko eta iraun dezan aukera ematen digun tresna bat.



CRISTINA FALLARÁS



INDARKERIA SEXISTAREN KON- TRAKO EMAKUMEON PLATAFORMA

IRATXE ÁLVAREZ REOYO

Besta-inguruneko indarkeria sexisten arloan eta Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunaren inguruan lan egiten du Plataformak.

PLATAFORMA 90EKO HAMARKADAREN ERDIALDEAN SORTU ZEN, indarkerien gaia lantzeko eta Azaroaren 25a antolatzeko. Gaur egun ere, geu gara deialdia egiten dutenak eta hilabete horren inguruko sentsibilizazio-kanpainak abiarazten dituztenak.

Gure borrokak eta gure lanak urte osoan jarraitzen dute. Utzi diguten guztietan, eta ahal izan dugun guztietan, ahalagindu gara erakundeei legeak eta proposamenak hobetzen laguntzen eta ekarpenak egiten.


Ez gara beti izan eroso, ia inoiz ez. Erakunde-esparrua ez zaigu beti eroso iruditzen, baina duela urte batzuk bestetako protokoloarekin hasi ginen, eta elkarteen ingurunean landu genuen. Une batera iritsita, ulertu genuen erakundeei ere zerbait esan behar zutela, eta haiekin elkarlanean hasi ginen.

“Intentsitate txikiko” indarkeriak gertatzen zitzaizkigun gauzak baino ez ziren, “kaskarinak” izateagatik, hain zuzen ere. Ez ziren indarkeria. Izan ere, zigortu egiten gaituzte egoten ahal ez garen leku batean egoteagatik, ez baita gurea, gizonezkoena baizik.

Emakumeok ez ezik gizarte osoak ere egin duen lan hori guztia erabakigarria izan da klase politikoaren jarrerarako eta politika publikoen diseinurako.

Gaur egungo egoera aztertuta, esan behar dugu aski eboluzionatu dugula, orain kontzientzia soziala dagoela indarkeria zer den eta orain jasandako indarkeria guztiak identifikatzen eta izendatzen ahal ditugula emakumeok.

Gure ustez, erakundeei dagokie laguntza ematea. Indarkeria-egoeran dauden emakumeek doako arreta duina jasotzeko eskubidea dute. Jakin behar dute nora joan; ez dezatela guri deitu beharrik izan hori jakiteko. Baliabideen berri ez badute, halakorik ez balego bezala izanen da.





ASTELEHEN LILAK

TERE SÁEZ BARRAO

Elkarte honek indarkeria matxista jasaten duten emakumeekin lan egiten du zuzeneko arretan, bereziki indarkeria sexualetan, bikarioan eta instituzionalean, eta feminismoetan sentsibilizatzen. BERDINNA 2020 saria jaso zuen.

GURE ELKARTEAK NAFARROAKO HASIERAKO MUGIMENDU FEMINISTAN DU JATORRIA. 80ko hamarkadan,

gai hauek lantzen genituen: sexu-eskubideak eta abortua, banantzeak, “tratu txarren” indarkeria (hala izendatzen zen garai hartan) eta sexu-erasoak. Urteetan zehar, lekukotza anitz bildu genituen, eta, horren ondorioz, presioa egin ahal izan genion Iruñeko Udalari lehenbiziko harrera-etxea ireki zedin; mugimendu feministak koordinatu zuen. Zuzeneko arreta ere eman diegu emakumeei gure elkartearen. Horrek ezagutza ematen zigun, eta aukera ematen zigun eragina izateko eta prebentzioa egiteko. Orain aktibistak gara, eta elkartera etortzen diren emakumeei arreta ematen jarraitzen dugu, baina, batez ere, eragin politikoaren esparruko lanean aritzen gara.


Garrantzitsua da jakitun izatea zer lortu dugun. Aurrerapen oso garrantzitsuak egin ditugu, bizipenezkoak, banakakoak, taldekakoak, lege eraldatzaileak... Aurrerapen handia izan da orain dela zenbait urte zeure burua feminista gisa aurkezten zenuenean gertatzen zenarekin alderatuta.

Orain, legeak garatzea lortu behar dugu, eta, gure ustez, mugimendu feministaren lana da, herritarren mugimenduarena. Eskubide horiek existitzen dira, eta herritarrek ulertu behar dute eskubide horiek erabili behar dituztela.

2008an Nagore Laffage erail zutenetik, inflexio-puntu bat egon zen Nafarroako gizarteak berak sexu-indarkerien aurrean zuen erreakzioan. Astelehen Lilak elkarteak lan handia egin du horren inguruan. Dagoeneko ez gara hamar feminista manifestaziora ateratzen garenak, orain anitzez ere emakume gehiago ateratzen gara, bai eta gizonak ere.

Nafarroan, Skolae bultzatzea lortu genuen, hezkidetzak lantzeko ikasgelan. Eraldaketek, banakakoek behintzat, denbora behar izaten dute. Ez gara egun batetik bestera aldatzen. Lan motela da, eta prebentzioari eta sentsibilizazioari begira, ekin eta ekin egin behar da.

Emakumeen benetako erreparazioak nahierakoa izan behar du, gauza desberdinak behar baititu bakoitzak. Baina guztientzat oinarritzak eta funtsezkoak da sinesten dietela sentitzea.



Lagun egiten jarraitu behar da; emakumeek lekukotzak kontatzen jarraitu ahal izatea erraztu behar da. Zorionez, orain lagunek egiten dute lagun. Duela urte batzuk mugimendu feministaren laguntza-taldeek egiten genuen lagun.



OBSERVATORIO NOCTÁMBUL@S

ANA BURGOS GARCÍA

Antropologo eta kazetari feminista. Sexu-indarkerien eta drogen arloan aditua da, eta masterra du genero eta garapenean. Proyecto Malva koordinatzen du

Salud y Comunidad Fundazioak 25 urte baino gehiago daramatza lanean, gizarte-bazterketako arriskuan edo egoeran dauden kolektiboei bereziki eragiten dieten osasun- eta gizarte-problematiken ikerketan, prebentzioan, esku-hartzean eta sentsibilizazioan. 1999an, genero-ikuspegia txertatu nahi izan zuen adikzioen esparruan, genero-desberdintasunak baitaude kontsumo-ereduetan eta adikzioetan.

Gizonezkoentzat aringarria izan ohi da (mozkortuta zegoen) eta emakumezkoentzat astungarria (erruduntasuna).

Emakumeen kasuan, oso loturik dago jasandako indarkeriekin, aurre egiteko estrategia bat edo indarkeria matxistaren biktimizazioaren aurrekari bat baitira.

Hala, Proyecto Malva sortu zen, bi ekimenekin:

- Ariadna proiektua, genero-indarkeriaren biktima diren eta kontsumoekin lotutako arazoak dituzten emakumeentzat.
- Observatorio Noctámbulas (2013), drogen inguruko gaiak ikuspegi feministarekin lantzeko.

Gehiegizko kontsumo guztiak arriskuarekin, esperimentazioarekin eta plazerarekin loturik daude, eta ezaugarri horiek guztiak maskulinitasunarekin loturik daude. Izan ere, gehiegizko maskulinitatetzat jotzen dira.

Emakumeok, ordea, kontsumoarekin, “gugandik espero denetik urruntzen gara”. Substantziak kontsumitzen ditugunean, zenbait estigma gertatzen dira: “ama txarrak”,

“biziosoak” eta abar. Gaueko aisialdian, horrek zigor espezifikoa batzuk ditu, sexu-indarkeriaren forman agertzen direnak.

Praktikan, ikerketa aitzindaria egiten hasi ginen, besta-inguruetan sexu-indarkeriak ikertzeko berariazko baliabideak bideratu baitziren.

Gure entitateetan, denok gatz mugimendu feministatik. Hau da, feministak eta erradikalak sartu gara erakundee-tan eta hirugarren sektoreko entitateetan ere, ezagutza feminista espazio horietara eramateko.

Iruñeko bortxaketaren kasutik aurrera, baldintzak sortu ziren erakundeak protokoloak egiteko estrategia eta politika publikoak lantzen hasteko.

Handik aurrera, udalei (eta gaueko aisialdiko lokalei ere bai) laguntzen eta aholkularitza ematen eta hedabideetarako materialak prestatzen hasi ginen.



Sumisio kimikoaz hedabideek ematen duten irudikapenean, albisteak erabat desorekatuta daude beste sexu-indarkeria mota batzuen aldean. Kontakizun “oso erosoak” dira, erasotzaile ezezagunaren irudia betikotzen baitute. Eta gizon ezezagun batek drogatutako biktima onaren irudia ere betikotzen dute.

Sumisio kimikoa oportunistak da: nahita kontsumitu ondotik biktimak baimenaz erabakitzeko duen zailtasunaz baliatzen da erasotzailea. Sexu-indarkeriei eta sumisio kimikoari buruzko informazioek indarkeriaren salbuespenezkotasunaren kontakizuna errepikatzen dute, uneko gertaera gisa ikusten baitute, eta ez, berez den bezala, prozesu patriarkal gisa.

ZER EGIN DEZAKEGU? ZENBAIT PROPOSAMEN

AISIALDI-INGURUNEETAKO SEXU-INDARKERIARI BURUZKO GIZARTE-IMAJINARIOA ALDATZEA. bizipen jakin batzuetan, testuinguru oso espezifiko batzuetan, ainguratuta gaude ora-indik ere, irudikapenen aldetik zein politika publikoen aldetik. Gaueko aisialdi-inguruneetako indarkeria gehienak ere gizon ezagunek egiten dituzte.

IKASTETXEETAKO PREBENTZIORAKO INBERTSIOAK SARTZEA BERDINTASUNEKO AURREKONTUETAN, “institutuko tailer” hutsa izan ez dadin.

BESTETAKO PROTOKOLOAK BIRPENTSATZEA, politika publikoan eta udal-politikan txerta daitezen.

SEXU-INDARKERIAREN KUDEAKETA ZEHARKAKOA IZATEA zenbait departamentutan, hala nola Kulturean, Osasunean, Segurtasunean, Hirigintzan eta abarretan, Berdintasunekoak izan ez daitezen hura kudeatzen duten bakarrak.

PURPLE WASHINGEKO⁵ PRAKTIKAK ETA SEXU-INDARKERIAK PREBENITZEKO ETA DESAGERRARAZTEKO ZERBITZUEN INSTRUMENTALIZAZIOA SAIHESTEA. izan ere, ikusten dugu zenbait estrategia ez direla prebenitzeko, baizik eta kontrolatzeko eta diziplinatzeko, hala nola edarian drogak detektatzeko kita edo edalontzi-estalkiak. Gaueko aisialdiko patronala eta beste enpresa batzuk kapitalizatzen ari dira estrategia horiek. Oso adi egon behar da *purple washing*arekin eta instrumentalizazioarekin, eta puntu moreak eta antzeko zerbitzuak profesionalizatzearen alde egin behar da.

5 Ingeleseztiko bi hitzek osatzen dute *purple washing* terminoa: *purple* eta *washing*. Euskaraz “garbiketa morea” izanen litzateke. Termino horrekin, izendatzen da enpresa batzuek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko kanpaina puntualak aitzakiatzat hartzea beren onurak eta irudia hobetzeko, kausarekin benetako konpromisorik izan gabe

ESKER ONAK

Dosierra bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu kongresu hau egitea ahalbidetu zuten guztiei, batez ere hura antolatzen lan egin duten NABiko kide guztiei.

Eskuineko argazkian, Las Poderosas -en emanaldia Kongresua ixteko.

Eskerrak eman nahi dizkiegu hizlarietara parte hartzeagatik, haien profesionaltasuna, esperientzia eta konpromiso feminista baloratu baitira jasotako ebaluazioetan.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, bereziki, kongresura joan zirenen guztiei, bertaratzeagatik eta parte hartzeagatik, bai eta *streaming* bidez eta Youtuben jarraitu dutenei ere.

Gogoan hartu ditugu beste batean agenda feministako gai garrantzitsu batzuei heltzeko eman dizkiguzuen gomendioak eta proposamenak: sexu-esplotazioa, prostituzioa eta salerosketa, pornografia eta landa-inguruneetako indarkeria matxista, kasurako.

Azkenik, Kongresuan egin genuen bezala, dokumentu hau amaitzeko mugimendu feministak emakumeen aurkako sexu-indarkeriak ikusarazteko, fokua jartzeko, publikoki salatzeke eta sentsibilizatzeko egindako lan guztia aitortu nahi dugu.



Landutako gaietan sakontzen jarraitu beharko litzateke (hitzaldi bakoitzak berariazko biltzar baterako adina ematen du). Oso egokiak izan dira zenbait gairen inguruan partekatzeke eta sakontzeko mahaiak. Oso landua izan da genero-ikuspegia feminista eta interseksionala. Mila esker.

KONGRESUA BUKATZEAN JASOTAKO EBALUAZIOETAKO
BATETIK ATERATAKO IRUZKINA.



HIZLARIAK ETA ELKARTEAK

PATRICIA AMIGOT LEACHE. Psikologia Sozialeko doktorea. NUPEko irakaslea. Genero Ikasketen eta Ikasketa Feministen Katedraren zuzendaria. Ikerketa-ildo hauek lantzen ditu: boterearen, generoaren eta indarkeriaren arteko harremanen eta subjektibazio-prozesu neoliberalen azterketa feminista.

CARLA VALL I DURÁN. Zuzenbidean lizentziaduna. Zuzenbide penalean eta generoan aditua. Hainbat erakundetarako prestatzailea. Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko zenbait erakunde publikoren aholkularia.

NORMA VÁZQUEZ GARCÍA. Psikoterapeuta feminista. 40 urte baino gehiago daramatza indarkeriaren biktimekin eta/edo bizirauleekin lan egiten. Laguntza teknikoa ematen die indarkeria matxisten kontrako politikak lantzen estatuko zein nazioarteko zenbait organismori eta erakunde publikori.

RUT ITURBIDE RODRIGO. NUPEko irakaslea eta ikertzailea. Cum Laude doktorea Giza eta Gizarte Zientzietan. Zuzenbidean lizentziaduna. Hainbat erakundetarako prestatzailea. Hainbat txostenen eta ikerketaren egilea. Gaur egun Nafarroako sexu-indarkeriei buruzko ikerketa bat egiten ari da.

BÁRBARA TARDÓN RECIO. Nazioarteko doktorea Genero Diziplinarteko Ikasketetan. Ikertzaile, aholkulari eta aktibista feminista, emakumeen kontrako sexu-indarkerian eta giza eskubideetan aditua. Hainbat GKErentzat eta estatuko eta nazioarteko erakunde-entzat lan egin du.

ELISA GARCÍA-MINGO. Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko irakaslea. DIVISAR (Digitalización de la Violencia Sexual, 2022-2025) proiektuaren ikertzaile nagusia. UCM Kultura

Digitala eta Gizarte Mugimenduak ikerketataldeko kide da.

CARMEN RUIZ REPULLO. Granadako Unibertsitateko irakaslea. Genero-indarkeriaren, sexu-indarkeriaren, zibermisoginiaren, hezikidetzaren eta nerabeen eta gazteen genero-indarkeriaren prebentzioaren arloko ikertzailea eta hezitzailea. SKOLAEko diseinuan parte hartu zuen.

NEREA BARJOLA RAMOS. Feminismoetan eta Generoan doktorea. Ikerketa-ildoak: emakumeen aurkako sexu-indarkeriaren irudikapenak eta haren kontzeptualizazioa proiektu politiko gisa. *Microfísica sexista del poder. Alcásser kasua eta sexu-terrorearen eraikuntza* (Virus, 2018) lanaren egilea, besteak beste.

ANA PELÁEZ NARVÁEZ. CEDAWeko (NBE) lehendakaria. CERMÍ Mujeres Fundazioaren lehendakariordea. Europako Desgaitasunaren Foroaren idazkari nagusia. 25 urte baino gehiago daramatza zenbait gobernuri eta erakunderi aholkuak ematen desgaitasuna duten emakumeen eta nesken giza eskubideei buruz.

CRISTINA FALLARÁS SÁNCHEZ. Idazlea eta kazetaria, errekonozimendu ugari jaso ditu berdintasunaren alde egindako lanagatik. 2018an #Cuéntalo traola bultzatu zuen Twitterren. Instagramen jarraitzen du konpromiso horrekin, eta bertan sexu-indarkeriaren biktimen lekukotzak biltzen ditu.

OBSERVATORIO NOCTAMBUL@S. Salud y Comunidad Fundazioan sortu zen (2013), gaueko aisiaren errealtatea eta sexu-indarkeriekin eta substantzien kontsumoarekin duen harremana ezagutzeko ikerketa-proiektu gisa. Egin diren bost azterlanen datuak eta ondorioak (estatu mailakoak) baliagarriak izan dira problematika hori eta ezagutza enpirikotik eta ikuspegi feministatik erantzunak emateko beharra ikusarazteko.

PLATAFORMA DE MUJERES CONTRA LA VIOLENCIA SEXISTA. Besta-inguruneko (sanferminak) indarkeria sexisten arloan eta Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunaren inguruan lan egiten du Plataformak.

LUNES LILAS. Elkarte honek indarkeria matxista jasaten duten emakumeekin lan egiten du zuzeneko arretan, bereziki indarkeria sexualetan, bikarioan eta instituzionalean, eta feminismoetan sentibilizatzen. BERDINNA 2020 saria jaso zuen.

SEXU-INDARKERIEI ARRETA INTEGRALEKO ZENTROA (SIAIZ). 24 orduko krisi-zentroak: laguntza psikologikoa, juridikoa eta soziala ematen duten zerbitzuak. Etengabeko arretaren eta premiazko jarduketaren irizpideen arabera, laguntza eta laguntza emango diete biktimei, senideei eta inguruko pertsonaei krisi-egoeretan. Zentro horietan sartzen dira laguntza eta telefono bidezko eta aurrez aurreko informazioa, eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan.

ASOCIACIÓN ITXAROPEN GUNE-LUGAR DE ESPERANZA. 2004an eratu zuen Iruñean, irabazi asmorik gabeko elkarte gisa, 1980tik gizarte-arazoak zituzten emakumeei laguntzeko zenbait erakundetan lan egiten zuten profesionalen talde batek.

BIBLIOGRAFIA ETA BALIABIDEAK

Kongresuko hizlariek beren aurkezpenetan aipatu dituzten liburuak, ikerketak eta erreferentziako beste baliabide batzuk bildu ditugu.

Helburua ez da bibliografiaren zerrenda osoa eskaintzea, baizik eta gune bat eskaintzea corpus teoriko oso bat eraikitzeko balio izan duten materialak eta autoreak (akademikoak, aktibistak, saiakeren autoreak) izendatzeko eta ikusarazteko, corpus horrek balio baitu emakumeen kontrako sexu-indarkeriak desagerrarazteko lanean jarraitzeko.

SEXU-INDARKERIEEN ESPARRUA

BENJAMIN, JESSICA. (1988). *The Bonds of Love: Psychoanalysis, Feminism, and the Problem of Domination*.

BERGER, JOHN. (1972). *Maneras de ver*.

BOURDIEU, PIERRE. (1988). *La dominación masculina*.

DELEGACIÓN DEL GOBIERNO CONTRA LA VIOLENCIA DE GÉNERO. (2019). *Macroencuesta de Violencia contra la Mujer*.

FRASER, NANCY. (2013). *Fortunes of Feminism. From State-Managed Capitalism to Neoliberal Crisis*.

LAGARDE, MARCELA. (2005). *Cautiverios de las mujeres. Madresposas, monjas, putas, presas y locas*; (2016). *Mujeres*; (2010). *Mujeres, globalización y derechos humanos*.

LERNER, GERDA. (1986). *La creación del Patriarcado*.

LEWIS HERMAN, JUDITH. (2004). *Trauma y recuperación*.

NUSSBAUM, MARTA. (1999). *Women and Human Development*.

SEGATO, RITA. (2016). *La Guerra contra las Mujeres*; (2006). *La escritura en el cuerpo de las mujeres asesinadas en Ciudad Juárez*; (2018). *Contra-pedagogías de la Crueldad*.

SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEKIN GENERO-IKUSPEGITIK ESKU HARTZEA

AMORÓS, CELIA. (1985). *Hacia una crítica de la razón patriarcal*.

BARJOLA, NEREA. (2018). *Microfísica sexista del poder: El caso Alcázar y la construcción del terror sexual*.

BERDINTASUN MINISTERIOA. Aldi baterako erakusketa: “¿Qué llevabas puesto? Desmontando patrones sobre la violencia sexual”.

Beren gorputzarekin lan egin duten artistak: Frida Kahlo, Remedios Varo

CARD, CLAUDIA. (2002). *The Atrocity Paradigm*.

HOOKS, BELL. (2021). *Enseñar a transgredir*.

LATESTIS. (2019). *El violador eres tú*.

MARTIN ALCOFF, LINDA. (2019). *Violación y resistencia*.

GENERO INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNUAREN ORDEZKARITZA. *Percepción social de la violencia sexual*

ELKARRIZKETA. SEXU-INDARKERIA BERRIAK

CASADO, ELENA. Soziologoa eta Madrilgo Konplutense Unibertsitateko irakaslea (2018an egindako elkarrizketa).

GARCÍA-MINGO, E. & DÍAZ FERNÁNDEZ, S. (2022). *Jóvenes en la Manosfera. Influencia de la misoginia digital en la percepción que tienen los hombres jóvenes de la violencia sexual*.

SAVE THE CHILDREN. (2024). *Informe Silenciadas, un análisis sobre agresiones sexuales en la adolescencia*. Granadako Unibertsitatea

tearen kontura Carmen Ruiz Repullo Sozio-
logia Departamentuari atxikitako irakasle eta
ikertzaileak alde aurretik egindako ikerketan
oinarritua.

GENERO-INDARKERIA ADINGABEEN ARTEAN

DEMAUSE, LLOYD. (1995). *Historia de la Infancia*.

FINKELHOR, DAVID. (1979). *Abuso sexual al menor*.

LORDE, AUDRE. (2017). *Your Silence Will Not Protect You*.

SURIA, MARTA. (2029). *Ella soy yo*.

VACCARO, SONIA. (2009). *El pretendido Síndrome de Alienación Parental*.

SEXU-INDARKERIAK INTERSEKZIONALITA- TETIK

ASOCIACIÓN MUJERES CON VOZ. (2020). *Mujeres resilientes con linaje*.

ASOCIACIÓN POR TI MUJER Y EL FONDO DE MUJERES CALALA. (2024). *Violencia sexual a mujeres inmigrantes del sector de los cuidados*.

Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Batzordea.

Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordearen 3. Ohar Orokorra, desgaitasuna duten emakume eta neskei buruzkoa. (2016).

El Salvadorreko Egiaren Batzordearen txostena. (1993).

Emakumearen aurkako indarkeria eta etxe-ko indarkeria prebenitzeko eta borrokatzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena), 4. artikulua (oinarrizko eskubideak, berdintasuna eta diskriminazio-rik eza), 18.3 artikulua (betebehar orokor-rrak), 23. artikulua (babeslekuak), 25. artiku-
lua (larrialdietarako laguntza-zentroak) eta

39. artikulua (nahitaezko abortuak eta esteri-
lizazioak). (2011).

FUNDACIÓN CERMI-MUJERES. *La violencia sexual en las mujeres con discapacidad intelectual*, (2020). Genero Indarkeriaren aur-
kako Gobernuaren Ordezkaritzak sustatua
eta finantzatua eta CERMI-Mujeres Funda-
zioak egina. (2020).

Genero Indarkeriari buruzko Europako Inkes-
ta. (2022).

Giza Eskubideen Kontseiluaren 47/15 Eba-
zpena emakume eta nesken kontrako in-
darkeriaren mota guztiak ezabatzeko eta
desgaitasuna duten emakumeen eta nesken
kontrako indarkeria mota guztiak prebenitze-
ko eta borrokatzeko ahaleginak bizkortze-
ari buruzkoa. (2021).

ITURBE, NÚRIA. (2021). *Estudios de la Violencia Sexual sin recuerdo en Baleares y Ca-
talunya* (INTRESS).

Kolonbiako Egiaren Batzordearen txostena.

OBSERVATORIO NOCTÁMBULAS. Txostenak
eta gidak.

Nafarroako Gobernua Nafarroako Berdintasunerako Institutua

Zuzendari kudeatzailea

Patricia Abad Encinas

Edukien laburpena

Beatriz Bonete (NosotrAs Estudio)

Diseinua eta maketazioa

Ester Serraz (NosotrAs Estudio)

Azalaren diseinua

Natalia Romero

Kontaktua

instituto.navarro.igualdad@navarra.es

X @igualdad_na

FB @igualdadnavarra

YT @institutonavarroparalaigualdad

LG NA 109-2025

